



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Metro Bilbaok "une oro" euki ebazan operatibo segurtasun sistemak, 2. lineako "lau" nasa argi barik itxi ebazan Urbinagako azpi-estazinoko matxuran

Bilbon, 2013ko azaroaren 18an

Batzarretako talde batzuk behin eta berriz egindako galderei erantzunez, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako diputatuak hiru bider adierazo behar izan dau Metro Bilbaoko larrialdi sistema "guztiek" behar bezala funtzionau ebela joan dan urriaren 29an, 2. lineako "lau" geltokitako nasetako larrialdietako argiztapenean detektau zan "arazo" bat izan ezik, Urbinagako azpi-estazinoan egondako matxura baten ondorioz hornidura elektrikoaren erorketea zala eta. Gertakari hori dala eta, lur azpiko trenaren Aginte Postuak, jarduketa protokoloari jarraituz, une horretan geltokietan eta trenetan egozan erabiltzaileak ebakuetako erabagia hartu eban. Garamendik adierazo dauenez, arazoa ordubete baino apur bat gehiagotan konpondu zan.

Bizkaiko Talde Popularrak (PP) eskatutako agerpenean, Aldundiko arduradunak guzurtatu egin dau "jazoera" horrek metroren segurtasuna zalantzan jarten dauenik, PP-k esan dauen moduan, beste errazoi batzuen artean, metroko larrialdi sistemak bikoiztuta dagozalako. Geltokietako elikadura iturri nagusiak funtzionetan ez badau, sistema alternatibo bati esker oinarriko zerbitzuek funtzionetan jarraitzen dabe, hau da "segurtasunagaz erlazionautako ekipoez eta ebakuazino beharrak betetan dituenek", argitu dau. Eta horreek funtzionetan ez badabe, geltoki bakotxerako independentea dan bateria bidezko elikadura sistemeak "ekipo kritikoez energia bermatzen deusie ordubetez". Diputatuaren berbetan, sistema biak "martxan egon ziran arazoa gertatu zan bitartean". Guzurtatu egin dau, baita, metroa segurtasunean aurrezten ari danik, Jesús Isasi batzordekide popularrak aitatu dauen moduan. "Segurtasunean ez dago aurrezpenik". "Segurtasunagaz ez dogu jolasten", erantzun dau.

Bere agerraldian, Garamendik adierazo dau 2014an Kabiezeseko geltokia zerbitzua emoten hasten danean, Ezkerralde osoa zeharketan dauen energia hornidura sistema osoak hobekuntza nabarmena izango dauela, batez be, une honetan eregiten dagoan "potentzia handiagoko" azpi-estazinoa martxan jarriko dalako. Dana dala, diputatuak adierazo dauenez, Barakaldo eta Santurtzi arteko lau geltokitako nasetako argiztapenean hautemandako "akatsagaz" metroak egingo dauen txosten teknikoaren ondorioak dituanean emongo ditu azalpenak. Arazo hori dala eta jentea ebakuetea erabagi zan.

Jesús Isasi (PP) batzordekidearen ustez, barriz, matxura horrek "agerian itxi eban" Metro Bilbaoko segurtasun sistemea. Bere eretziz, "bigarren mailako beste sistema bat" beharrezkoa da, gitxienez igongailuen eta eskilaren zerbitzua bermatzeko. Urriaren bukaerako matxuran erabiltzaileentzako arriskurik ez zala egon onartu arren, esan dau beste egoera batzuetan "arazo larria" izan daitekeala argi falta dala eta geltokia ebakuau ezin izatea. Batzordekide popularrak esan dauenez, sistema laguntzaileen "bata bestearen atzeko akatsak" egon ziran.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Aldundiak esandakoagaz bat etorritz, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldearen eretziz, segurtasun sistemeak funtzionau eban, eta Metro Bilbaok “arin eta ondo” jardun eban. Lur azpiko trenaren protokoloek be adierazoten dabe igongailuak eta eskilarak ez dirala segurtasun elementuak. Larrialdi kasuetan “ez dabe funtzionau behar”, Jon Larrea batzordekideak gogoratu dauenez.

AP-8 AUTOPISTEA ZABALTZEKO LANEN EGOEREA

Beste alde batetik, PP taldearen galderei erantzunez, Aldundiko arduradunak adierazo dau AP-8 autopistea zabaltzeko lanek, Amorebieta-Muxika zatiak, Bermeoko saihebidetarak eta Gerediaga-Elorrio zatiak, hain zuzen be, zerbitzua emoten hasteko “epe guztiak” beteko dituela, eguraldi txarra dala eta, beharren “erritmoan aldaketak” egon diran arren.

Azkeneko neguan eta aurtengo udabarrian izandako etenbako euriak dirala eta, “beharren erritmoan aldaketa batzuk egon dira, baina geroago horreek konpentsau egin dira”. Hori dala eta, ez dau eraginik izan obra horreen “aurrerapen orokorrean”. Garamendik onartu dauenez, Gerediaga-Elorrio zatian atzerapen “txiki” bat dago, baina “datozan hilebeteetan atzerapen hori berreskuratzeko” itxaropena dauka.

Hiru obren martxari jagokonez, Garamendik zati bakoitzean zabalik dagozan puntuak azaldu ditu. Holan, Bermeoko saihebidetaren kasuan, lan gehienak saihebidetaren trazauan ari dira egiten. Bertako desmonteak oso aurreratuta dagoz, eta San Andreseko bide-zubiaren euskarrien oinarria eginda dago. Amorebieta-Muxika zatiari jagokonez, Aldundiak Autzaganekeko tuneleko 370 metro hondeauta ditu dagoaneko. Gerediaga-Elorrio zatian, 2016an funtzionetan hasiko dan errepideak dituan tunel bietako ahoen hondeaketa lanak egiten ari dira.

EZEZKOA BARIK TXARTELA DOAKOA IZATEARI

Beste alde batetik, batzordeak, PP taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat baztertu dau. Proposamen horren bitartez, eskaerea egin gura izan jako Bizkaiko Garraio Partzuergoari (BGP-CTB), Barik txartela erosteko ordaindu behar diran 3 euroak erabiltzaileei itzultzeko. Ekimena ez da onartu, aldeko 5 boto (PP eta Bildu), kontrako 6 boto (EAJ-PNV) eta 2 abstentzino (PSE-EE) izan ditualako.

Zehatzago esanez, PP taldearen proposamenean eskaerea egiten jakon Foru Aldundiari, Herri Lan eta Garraioetako Sailak egin beharreko gestinoak egin daizan Bizkaiko Garraio Partzuergoaren aurrean, Barik txartela uritarrengan kosturik eukiko ez dauen ordainketa sistema izan daiten. Jesús Isasi batzordekide popularrak uste dau Bizkaiak, garraio publiko sistema “gehienen” joerea jarraitu beharko leukela. Sistema horreetan, txartel horreen prezioa itzuli egiten da, erabiltzaileak txartela itzultzen dauenean. Neurriak eragin positiboa eukiko leuke taldeetan bidaiatzen daben pertsonengan.

Proposamenak Bilduren aldeko eretxia baino ez dau jaso. Talde horrek esan dauenez, PP taldearen ekimenak, Bildu taldeak, “beste tarifakazino bat” eta gizarte egoera txarragoan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dagozan taldeentzako “beherapen gehiago” ezarteko bultzatzen dauen ildo jarraitzen dau. Asier Sanz batzordekideak aurreratu dauenez, bihar Bizkaiko Batzar Nagusietan martxan jarriko dan Bizkaiko Garraioaren Agintaritzaren Bakarra Sortzeari buruzko Lantaldean eztabaidatu ahal izango da.

EAJ-PNV taldearen eretziz, oso erreza da PP-ren “idearen alde agertzea, baina neurri hori azalekoa baino ez da”. Edorta Rodrigok, neurri hori martxan jarriko izango leukezan “kontrako aldeak” aitatu ditu. Horreen artean, sistema informatiko barriak garatu beharra, software aldaketak eta itzulitako txartelak jasotzeko, biltzeko eta kudeatzeko prozedurak sortu beharra aitatu ditu, eta horrek Garraio Partzuergoarentzat “kostu gehiago” eragingo leukezala esan dau. Batzordekide jeltzaleak bere erantzunean adierazo dauenez, Barik txartel bakoitza egiteko kostua “0,88 eurokoa” da (BEZ aparte), eta biltegitratze gastuak “hilean 4.400 eurokoak dira”. Une honetan “846.000 Barik txartel dagoz”.

PSE-EE taldeak, bere aldetik, abstenitzeko erabagia hartu dau. Gurago dau Bilbao Bizkaia Card txartela martxan jarri arte itxarotea. Turistarentzat pentsauta dagoan garraio titulu hori “berekala” jarriko da martxan, Rodrigok (EAJ-PNV) esan dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Metro Bilbao mantuvo operativos "en todo momento" sus sistemas de seguridad en la avería de la subestación de Urbinaga que dejó sin luz "cuatro" andenes de la Línea 2

Bilbao, a 18 de noviembre de 2013

Ante la insistencia de algunos grupos junteros, la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha mantenido hasta en tres ocasiones que “todos” los sistemas de emergencia de Metro Bilbao funcionaron correctamente el pasado 29 de octubre, excepto una “anomalía” detectada en el alumbrado de emergencia de los andenes de “cuatro” estaciones de la Línea 2, afectadas por la caída del suministro eléctrico como consecuencia de una avería en la subestación de Urbinaga. El incidente provocó que el Puesto de Mando del suburbano ordenara, siguiendo su protocolo de actuación, evacuar a los usuarios que en ese momento se encontraban en estaciones y trenes. Según el relato de Garamendi, la incidencia se resolvió en poco más de una hora.

En la comparecencia, solicitada por el grupo Popular Vizcaíno (PP), la responsable foral ha negado que esta “incidencia” ponga en entredicho la seguridad del metro como apuntaba el PP, porque, entre otras cosas, los sistemas de emergencia del metro están duplicados. Si no funciona la fuente principal de alimentación de las estaciones, un sistema alternativo mantiene los servicios esenciales en funcionamiento, o sea “los equipos relacionados con la seguridad y aquellos que cubren las necesidades de evacuación”, ha aclarado. Y si estos fallan, un sistema de alimentación de baterías independiente para cada estación, “asegura energía a los equipos críticos durante una hora”. Según la diputada, ambos sistemas “permanecieron operativos durante la incidencia”. Ha rechazado también que el metro esté ahorrando en seguridad como dejaba caer el apoderado popular Jesús Isasi. “Con la seguridad no se juega”, le ha respondido.

En su intervención, Garamendi ha señalado que la entrada en funcionamiento de la estación de Kabiezes en el año 2014 supondrá una mejora del sistema de suministro de energía de la línea que atraviesa la Margen Izquierda, sobre todo, por la entrada en funcionamiento de una subestación con “mayor potencia” que está en fase de construcción. En cualquier caso, la diputada ha anunciado que ofrecerá explicaciones cuando tenga las conclusiones del informe técnico de metro en relación con el “fallo” detectado en el alumbrado de los andenes de cuatro estaciones entre Barakaldo y Santurtzi, por el que se aconsejó la evacuación.

Por contra, para el apoderado Jesús Isasi (PP), esta avería “dejó en evidencia” el sistema de seguridad de Metro Bilbao que debiera disponer, según él, de un “sistema secundario” que garantizase por lo menos el servicio de ascensores y escaleras mecánicas para facilitar las labores de evacuación. Pese a admitir que, en la avería de finales de octubre, no hubo riesgo para los usuarios, en otras circunstancias puede resultar “bastante serio” que no se pueda evacuar la estación por falta de luz. Hubo un “fallo en cadena” de los sistemas auxiliares, ha mantenido el apoderado popular.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En línea con la Diputación, el grupo Nacionalistas Vascos (PNV) cree que el sistema de seguridad funcionó y que la empresa explotadora del metro actuó “pronto y bien”. Los propios protocolos del suburbano establecen que los ascensores y escaleras no son elementos de seguridad. “No tienen que funcionar” en casos de emergencia, ha explicado el juntero Jon Larrea, en contestación al PP.

ESTADO DE LAS OBRAS DE AMPLIACIÓN DE LA AP-8

Por otro lado, a preguntas también del PP, la responsable foral de carreteras ha asegurado que la obras de ampliación de la AP-8, concretamente en sus proyectos Amorebieta-Muxika, Variante de Bermeo y Gerediaga-Elorrio, cumplirán “todos los plazos” de entrada en servicio, pese a que las malas condiciones meteorológicas han producido “cambios en el ritmo” de los trabajos.

Las incesantes precipitaciones de este último invierno y de la primavera de este año, han motivado “algunos cambios de ritmo en el desarrollo de los trabajos, que posteriormente se han visto compensados”, de manera que no ha afectado al “avance global” de estas obras. Garamendi ha admitido que en la Gerediaga-Elorrio existe un “leve” retraso que espera “sea recuperado en los próximos meses”.

En cuanto al avance de las tres obras, Garamendi ha ofrecido información sobre los distintos tajos abiertos en cada tramo en construcción. Así, en el caso de la variante de Bermeo, la mayoría de los trabajos se desarrollan en su gran mayoría en la traza de la variante donde están muy avanzados los desmontes y se ha ejecutado la base de apoyos del viaducto de San Andrés. En cuanto a la Amorebieta-Muxika, la Diputación ha excavado ya 370 metros del túnel de Autzagane. Y en la Gerediaga-Elorrio, se están realizando las excavaciones de las bocas de los dos túneles con los que cuenta esta carretera que entrará en funcionamiento en el año 2016.

RECHAZO A LA GRATUIDAD DE BARIK

Por otro lado, la comisión ha rechazado una Proposición No de Norma del PP con la que se pretendía instar al Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) a que esta entidad devolviera a los usuarios los 3 euros que cuesta adquirir una tarjeta Barik. La iniciativa ha decaído por 5 votos a favor (PP y EH Bildu), 6 votos en contra (PNV) y 2 abstenciones (PSE-EE).

En concreto, el PP pedía al Departamento de Obras Públicas y Transportes que realizase ante el CTB las gestiones oportunas para permitir que Barik fuera un título de pago que no repercutiese los costes en el ciudadano. El apoderado popular Jesús Isasi cree que Bizkaia debe seguir la tendencia de la “gran mayoría” de sistemas de transporte público que reembolsan el precio de este tipo de tarjetas cuando son devueltas por el usuario. La medida beneficiaría mayormente a las personas que viajan en grupos.

La propuesta sólo ha recibido el apoyo de EH Bildu. Esta formación considera que la iniciativa del PP estaba en su línea de establecer “otra tarificación” y “más descuentos” para colectivos sociales perjudicados, algo que podrá ser debatido, según el apoderado Asier Sanz, en la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ponencia sobre la Creación de una Autoridad Única del Transporte en el territorio que arrancará mañana en las Juntas Generales de Bizkaia.

Para el PNV, la idea del PP es “fácil de apoyarla pero se queda en la superficie”. Edorta Rodrigo se ha referido a los “contras” de adoptar esta medida, entre los que ha citado el desarrollo de nuevos sistemas informáticos, las modificaciones del software y la creación de un procedimiento de almacenaje y gestión de las tarjetas devueltas que provocaría “nuevos costes” para el Consorcio de Transportes. En su réplica, el apoderado jeltzale ha constatado que cada tarjeta Barik –“existen 846.000”- tiene un coste de fabricación de "0,88 euros" (sin IVA), más "4.400 euros mensuales" por gastos de almacenaje.

Por su parte, el PSE-EE ha decidido abstenerse al preferir esperar a la puesta en marcha de la Bilbao Bizkaia Card, un título de transporte pensado para el turista cuya implantación será “inminente”, según Rodrigo (PNV).